Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2326

AGINDUA, 2011ko martxoaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena. Honen bitartez, debekatu egiten da lanpernak (Pollicipes pollicipes) ateratzea Donostia-San Sebastiángo Igeldoko Itsasargiaren eta Orioko udalerriko Anarri Tontorraren artean kokatzen den zonan.

Itsas arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legeko 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, itsas jarduna antolatu eta arautzeko finkatzen diren neurrien joera itsasoko baliabideak oinarri iraunkor batean babesteko eta mantentzekoa eta kostaldeko komunitateak garatzekoa izango da. Halaber, lege horretako 6. artikuluak egokitzat eta arrazoizkotzat jotzen du legez baimendutako baliabide eta aparailuekin egiten den eta jardueraren errentagarritasun ekonomikoaren eta itsasoko baliabide eta ekosistemen babes eta mantentzearen arteko orekari eutsiko zaiola bermatzen duen ustiapena.

Premisa horietatik abiatuz, eta aintzat hartuta lanpernak (Pollicipes pollicipes) Euskal Autonomia Erkidegoko kostan bizi duen egoera zaila dela, Eusko Jaurlaritzaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak baliabide hori ustiatzeko sistema ezartzearen komenigarritasuna baloratu zuen, horretarako kudeaketa planak erabiliz. Lanpernaren ustiapenerako plan hauek aplikatu dituzten autonomia erkidegoetan izandako eskarmentua arrakastatsua izan da.

Ekimen honi erantzunez, Azti-Tecnalia Fundazioak zera aurkeztu zuen: «Euskal Autonomia Erkidegoko kostaldean lanpernak (Pollicipes pollicipes) ustiatzeko planen aplikazioan bideragarritasuna aztertzeko saiakuntza proiektua». Bertan, saiakera esperientzia egiteko zona modura Donostiako Igeldoko Itsasargiaren eta Orioko udalerriko Anarri Tontorraren artean kokatzen den itsasertz tartea finkatu zen.

Proiektu horretan eskuratutako ondorioek agerian uzten dute saiakera zonaldean baliabidearen ustiapena neurriz gainekoa dela. Hori dela eta, kudeaketako lehen neurri modura, eta ustiapen plan bat ezarri baino lehen, beharrezkoa da hautatutako itsasertz tartean espezie hori Berreskuratzeko Plana garatzea, lanpernaren itsas bilketarako gutxienez bi urterako itxiz. Neurri honen helburua da, aztergai den itsasertz-tartean lanpernaren biomasaren berreskurapena ahalbidetzea baliabide hori modu jasangarrian eta errentagarrian

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

2326

ORDEN de 10 de marzo de 2011, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se prohíbe la extracción de percebe (Pollicipes pollicipes) en la zona comprendida entre el Faro de Igeldo en Donostia-San Sebastián y la Punta Anarri en el municipio de Orio.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 10 de la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de Pesca Marítima, las medidas que se establezcan para la ordenación y regulación de la actividad pesquera tenderán a proteger y conservar sobre una base sostenible los recursos marinos y el desarrollo de las comunidades costeras. Así mismo, el artículo 6 de la citada Ley considera explotación adecuada y racional la que, realizándose con medios o artes legalmente autorizados, garantice el equilibrio sostenido entre la rentabilidad económica de la actividad y la protección y conservación de los recursos y ecosistemas marinos.

Partiendo de estas premisas, y teniendo en cuenta la delicada situación del percebe (Pollicipes pollicipes) en la costa del País Vasco, la Dirección de Pesca y Acuicultura del Gobierno Vasco valoró la conveniencia de implantar un sistema de explotación de este recurso por medio de planes de gestión. La experiencia en las Comunidades Autónomas que han aplicado estos planes para la explotación del percebe ha resultado ser exitosa.

Como respuesta a esta iniciativa, la Fundación Azti-Tecnalia presentó un «Proyecto piloto para el estudio de la viabilidad en la aplicación de planes de explotación del percebe (Pollicipes pollicipes) en la costa del País Vasco», delimitando como zona para llevar a cabo la experiencia piloto el tramo litoral comprendido entre el Faro de Igeldo en Donostia-San Sebastián y la Punta Anarri en el municipio de Orio.

Las conclusiones obtenidas en el citado Proyecto constatan la situación de sobreexplotación del recurso en la zona piloto por lo que, como primera medida de gestión, con carácter previo a la implantación de un plan de explotación, es preciso desarrollar un Plan de Recuperación de la especie en el tramo de litoral seleccionado, cerrándolo como mínimo durante un periodo de dos años para el marisqueo de percebe. El objetivo de esta medida consiste en permitir la recuperación de la biomasa de percebe en el tramo

ustiatu ahal. Gainera, itxierak iraun bitartean, areagotu egin beharko da zonako zaintza eta kontrola, horren bitartez ezkutuko jarduleak ekiditeko eta baliabidea berreskuratzen ari den edo ez ebaluatzea ahalbidetuko duen jarraipena egiteko.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko martxoaren 16ko Aginduaren bitartez, itxialdia indarrean sartu zen. Hain zuzen ere, Donostiako Igeldoko itsasargiaren eta Orioko udalerriko Anarri Tontorraren arteko eremuan lanpernak ateratzeko debekua ezartzen du agindu horrek. Aginduaren arabera, itxialdia urtebetekoa zen, eta, txosten teknikoak zein zientifikoak kontuan hartuta, epe hori luza zitekeen urtebeteka.

Hori dena kontuan hartuta, Azti-Tecnaliak egindako txostenetan aipatzen diren gomendioak direla medio, komeni da itxialdia urtebete luzatzea. Luzapen honen bitartez, alde batetik lanpernaren kopurua berreskuratzeko behar den gutxieneko epea garatuko da, eta, bestetik, aipatutako berreskuratzea zientifikoki egiaztatuko ahal izango da dagozkion txostenen bitartez.

Itsaski-bilketa egiteko arauak jartzen dituen uztailaren 1eko 171/1986 Dekretuko 25. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, egokitzat jotako zientzia eta teknika aholkularitzarekin, debekualdi eta gutxieneko neurriak ezartzeko arauak egin ahalko ditu Euskal Autonomia Erkidegoan biltzen diren itsaski espezieetarako.

Aisialdiko arrantzaleei dagokienez, Itsasoko Kirolarrantzaren Arautegia onesten duen urriaren 3ko 198/2000 Dekretuko lehen azken xedapeneko bigarren puntuak eskumena ematen dio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari dekretu horretako II. eranskineko bigarren idatzi-zatian bildutako espezieen harrapatze baldintzak eta aldiak aldarazteko, betiere, itsaski baliabideen egoerari buruz egiten diren azterlan eta analisi zientifikoetatik eratorritako gomendioak gorabehera.

Halaber, aisialdiko arrantzari buruzko araudiarekin jarraituz, besteak beste itsaski espezieen debekualdiak eta gutxieneko neurriak biltzen dituen taula orokorra finkatzen duen 102/1997 Dekretuko azken xedapenak ere eskumena ematen dio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari debekualdien eta neurrien taula orokorra aldatzeko nahiz kirol arrantzaleei debekatutako espezie kopurua zabaldu edo murrizteko eta espezieak ateratzeko denbora, modua eta tokia finkatzeko, betiere, kasuan kasuko txosten eta irizpen teknikoen ondotik.

litoral sujeto de estudio de cara a poder sostener una explotación sostenible y rentable del recurso. Además, durante el cierre deberá incrementarse la vigilancia y control de la zona para evitar el furtivismo, así como realizar un seguimiento que permita evaluar la recuperación del recurso.

El cierre se hizo efectivo por medio de de la Orden de 16 de marzo de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se prohíbe la extracción de percebe (Pollicipes pollicipes) en la zona comprendida entre el Faro de Igeldo en Donostia-San Sebastián y la Punta Anarri en el municipio de Orio. El periodo previsto en la Orden fue de un año, prorrogable por periodos de un año si los informes técnicos y científicos así lo aconsejan.

En este sentido, de acuerdo con las recomendaciones recogidas en los estudios llevados a cabo por la Fundación Azti-Tecnalia, sería recomendable la prórroga del cierre establecido durante un año más. El objetivo de dicha prórroga consiste en proporcionar al recurso del percebe del tiempo mínimo necesario para su recuperación y que ésta pueda ser constatada científicamente mediante la realización de los estudios pertinentes.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 25 del Decreto 171/1986, de 1 de julio, sobre ordenación del marisqueo en el País Vasco, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, de acuerdo con los asesoramientos científicos y técnicos que estime convenientes, podrá dictar normas estableciendo vedas y tallas mínimas de las especies marisqueras que se capturan en el País Vasco.

En cuanto a los pescadores recreativos, la disposición final primera, punto segundo, del Decreto 198/2000, de 3 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Pesca Marítima Recreativa, faculta a la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, para modificar el periodo hábil y las condiciones para la captura de las especies que se recogen en el apartado segundo del anexo II de ese Decreto, en función de las recomendaciones que se deriven de los estudios y análisis científicos que ser realicen sobre la situación de los recursos marisqueros.

Así mismo, siguiendo con la normativa referente a la pesca recreativa, la disposición final del Decreto 102/1997, por el que se establece, entre otras cuestiones, el Cuadro General de Vedas y Tallas Mínimas de las especies marisqueras, también faculta a la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca para modificar el cuadro general de vedas y tallas, así como para ampliar o reducir el número de especies prohibidas a los pescadores deportivos y para la fijación del tiempo, forma y lugar de extracción, de acuerdo con los oportunos informes y dictámenes técnicos.

Agindu honen xedea aldi batez lanpernak (Pollicipes pollicipes) ateratzea debekatzea da, bai itsaskilari profesionalei, bai aisialdiko arrantzale eta arrantzale profesionalei Donostiako Igeldoko Itsasargiaren eta Orioko udalerriko Anarri Tontorraren artean kokatzen den itsasertz tartean. Debekua urtebeterako finkatu da, teknikariek egingo duten ebaluazio txostenaren ondorioen zain. Hura baliabidea berreskuratu den edo ez jakitera eta ustiapenaren bideragarritasuna egiaztatzera zuzenduta egongo da.

Adierazitakoaren ondotik, zera

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Debekatu egiten da lanpernak (Pollicipes pollicipes) ateratzea, bai itsaskilari profesionalei, bai aisialdiko arrantzale eta arrantzale profesionalei Donostiako Igeldoko Itsasargiaren eta Orioko udalerriko Anarri Tontorraren artean kokatzen den itsasertz tartean.

Bigarrena.– Debeku hau aldi baterako izango da, urtebeterako hain zuzen, agindu hau argitaratu eta biharamunetik hasita, eta urtebeteko aldiez luzatzerik egongo da debekuaren gaineko jarraipena eta ebaluazioa egiteko idazten diren txosten teknikoek eta zientifikoek hori gomendatzen badute.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Arrantza eta Akuikulturako zuzendariari eskumena ematen zaio agindu honetan xedatutakoa burutzeko behar diren neurriak hartzeko.

Bigarrena.– Agindu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta honen aurka berraztertzeko hautazko errekurtsoa jarri ahalko dute interesdunek Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aurrean. Horretarako, hilabeteko epea egongo da honakoa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzerik dago Euskadiko Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, bi hilabeteko epean, honakoa aldizkari berean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 10a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

La presente Orden tiene por objeto prohibir temporalmente la extracción del percebe (Pollicipes pollicipes) tanto a los mariscadores profesionales como a los pescadores recreativos y profesionales en el tramo litoral comprendido entre el Faro de Igeldo en Donostia-San Sebastián y la Punta Anarri en el municipio de Orio. La prohibición se extiende por el periodo de un año, a la espera de las conclusiones del informe de evaluación que realicen los técnicos y que estará dirigido a verificar la recuperación del recurso y la viabilidad de su explotación.

En virtud de lo expuesto,

RESUELVO:

Primero.– Se prohíbe la extracción de percebe (Pollicipes pollicipes) a los mariscadores profesionales y a los pescadores recreativos y profesionales en el tramo litoral comprendido entre el Faro de Igeldo en Donostia-San Sebastián y la Punta Anarri en el municipio de Orio.

Segundo.– Esta prohibición tiene carácter temporal, por un periodo de un año, contado a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden y se podrá prorrogar por periodos de un año, teniendo en cuenta los informes técnicos y científicos que se emitan con motivo de la evaluación y seguimiento de la prohibición.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta al Director de Pesca y Acuicultura para adoptar las medidas que sean necesarias para la ejecución de lo dispuesto en esta Orden.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala correspondiente del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de marzo de 2011.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.